[KANALDUDE]

2018ko proiektu deialdia

Emaitzak

DOKUMENTALAK

LES CARACTÈRES

Elsa Oliarj-Inès – Point du jour

Serie dokumentala



Basabürüko ikastolako haur klase baten potreta egin nahi dut. Ama-eskolatik 5. urte arte, aire-hartzeetan beren joko, elgarrizketa eta ixtorioak filmatuko ditut. Urteetan zehar haurrak segituz, bakotxaren eraikuntza pertsonala nola garatzen den ikusi nahi dut, bai indibidualki, bai kolektiboki.

Idazketa laguntza

EZ HAIN ARROTZA ATZERRITARRA

Pablo Bueno – Xirimiri Films

52 minutu



Bastida Euskal Herriko herri ttipi bat da, « Frantziako herri ederrenetarik » labelaren jabe. Turismoak dakarren erakargarritasunaren ondorioz, azken urteetan etxebizitzen prezioak azkarki emendatu dira, gazteeri herrian bizitzeko aukerak azkarki murriztuz. Kristof Hiriart musikariak gonbidaturik, Massimo Furlan artista Bastidara heldu da eta jukutria bat bururatzen zaio : proposatzen du Herriko etxeari migranteen zentro bat idekiko dela sinestaraztea, etxebizitzen prezioak apaltzeko asmoz.
Jukutria abiapuntu gisa harturik, herritarrekin Hospitalités *antzerki obra idatziko dute, migranteen harreraren gaia plazaratuz.*

2015eko uda undarrean, fikzioa errealitate bilakatzen da : migranteen presentzia ez da gehiago fikzio bat. Bastidan, auzapezak eta auzapez ohiak egiazko harrera proposamen bat egiten dute. Dokumental honen helburua ez da bata-bestearen ondotik agertuko diren lekukotasunen agertaraztea, ez eta ere migranteak errezebitu dituen etsenpluzko herriaren ixtorio zoragarria kondatzea.
Migrante eta herritarren lekukotasunak bata bestearen oihartzun izanen dira, ixtorio bakotxa beste batekin lotuko da. Filma binakako dantza bat bezalakoa izanen da : bi arrotz elgarrekin baltsan, egun batez elgarrekin bizitzeko helburuarekin.

Idazketa laguntza

DESAGERPENA

Jonathan Millet – Dublin Films

45 minutu



Amazoniako oihanean, Peru iparraldean, Amadeo segitzen dugu. Taushiro hizkuntzaren azken hiztuna da. Zahartua da, akitua. Badaki laster hilen dela. Transmisiorik gabe, hizkuntza berekin itzaliko da. Bere bakardadean eta erritualetan segitzen dugu. Bere hizkuntza baliatzen du zuhaitzeri, ehiztatzen dituen animalieri eta bere anaia zenari mintzatzeko.
Amadeoren egunerokoa jarraikiz, filmak ondoko galdera pausatzen du : zer galtzen da hizkuntza bat desagertzen delarik ?

Aurresalmenta

EUSKAL APEZEN MATXINADA

Jean-Pierre Vedel – TGA

52 minutu



1968ko azaroaren 4an, espainiar elizak 60 apez kondenatzen ditu, Derioko monasterioan kantuak eta meza euskaraz emaiteagatik. Franco Jeneralaren diktadurak Zamorako presondegira bidaltzen ditu.
Bizkitartean, Derion klandestinoki grabatutako kantu zintek muga zeharkatu eta Baionako Pierre Manex produktorearen eskuetan bukatzen dute. Azken honek Gogor *diskoa ateratzen du, mundu guzian zabalduko dena* Chant du Monde *banatzailearen bidez.*

Garaian espetxeratuak izan diren hiru apezengana joanen gira : Xabier Amuriza, Josu Naberan eta Alberto Gabika. Presondegian ere erresistentziak segitu zuen : talde baten sortzea, gose grebak, suteak.. Apez erresistenteek, eraman duten borrokaren historia kondatuko daukute, kantu, utopia eta biolentziaz betea. Ixtorio honek argitara ekartzen du, atzo eta gaur, eliza katolikoak euskal mugimendu autonomistan eta kulturalean ukan duen errola.

Aurten, Euskal Herrian, apezen matxinada eta Gogor *diskoaren 50. urteurrena prestatzen ari dira. Oraindik lanean ari diren apezak, apez ohiak edo preso egon diren seminaristak Baionan elkartuko dira iraganeko bizipenen transmititzeko.*

Aurresalmenta

KONTSOLAMENDU

Itziar Leemans – Les films du temps scellé

60/90 minutu



Thomas Henriot-ek (38 urte) edonon margo lanak egiten ditu, lurrean berean, karrikan. Kubako kaleetan pintatzen dabil, egunero 10 orduko lan tarteak egiten ditu, pausarik gabe. Txinako tinta erabiltzen duenez, konzentrazio eta zehaztasun handia behar ditu. Espaloi gainean, bere inguruan gertatzen den guziaren meneko da : presatuak diren oinezko malestrukak, mintzatzera heldu zaizkion pertsonak, denbora txarra edo polizia. Bere sorkuntza ekintza, lurrean berean egina, hauskorra da. ***Kontsolamendu****-k artista orijinal eta erradikal honen potreta egin nahi du.*

Aurresalmenta

FILM LABURRAK

PROCESS

Ximun Fuchs – Gastibeltza Filmak

Iraupena zehaztekoa

2010eko apirila, nonbait, Norvegian.
Hiru ETA kide, 15 bat nazioarteko negoziatzaile, elurra, norbera bere mamu, arrangura eta betebeharrekin. Eta Frantziako eta Espainiako eserleku hutsak. Aterabide eta erabaki garrantzitsu bat pertsonaientzat baita herri oso batentzat. Zerk egin du erabakia gauzagarri ? Zer sartu da jokoan ? Pertsonaien barne erronkak eta bizipenek zer heinetan eragin dute erabakiaren ondorioak asumitzeko orduan ?

Process filma bi adierazpen historikoen arteko tartean kokatzen da :
2010eko martxoan Bruselan egindako hitzaldia (non ETA erakunde armatuari eskatu zitzaion su eten iraunkor eta egiaztagarri bat martxan jartzea) eta 2011ko urriaren 20an ETA-k aurkeztutako agiria (non adierazi zuen jarduera armatua behin betiko amaitu zuela).

Idazketa laguntza

FAUX DEPART

Bastien Milheau-k idatzia

Jean Larregaray –ek zuzendua

Parsifal Films

26 minutu

Pierrek laster 17 urte beteko ditu. Udako gau batez, Mauleko errugbi partida batetik sartzean, bere egunerokoa emeki emeki inbadituko duen silueta bat kurutzatzen du. Iraganeko mamuak berriz agertzen dira. Pierre eta bere aitetamek ihesbide bat aurkitu beharko dute, beren gibeletik heldu den mehatxuari aurre egiteko.

Aurresalmenta